

# Sagardoaren ontziak



TESTUA ETA ARGAZKIA:

**Jakoba Errekondo**

[jakoba@bizibaratzea.eus](mailto:jakoba@bizibaratzea.eus)

Zuraz eta egurraz idazteko asmoa nuen, sasoia gainean delako, baina sagardoarena ere bada, eta lagun sagardogile batek egin dizkidan galdera-amu biei helduko diet. Urtero ez da sagar kopuru bera izaten, eta sagardo egiteko ontzi batzuek urtea hutsik igaro behar izaten dute. Urte horretan ontziaren zurak “zoko usaina” hartu duela eta ea nola kendu galdetu zidan.

Gehiegizko garbitasunaren ondorioa da arazo hori. Sagardo botilaratu denean erabat hustu eta garbitu egiten da ontzia; on beharrez, ahalik eta sakonena garbitu ere: azpiko sagardoaren ama kendu, ontziaren oholetan dagoen lika arrastoa...

Ondoren hilabeteetan ontzia hutsik egongo da, eta, hala, zurak kanpotik bezala barrutik ere airea hartzen du. Zura sagardoz blai, beteta, belaki edo esponja bat balitz bezala, sagardoz busti-busti eginda egongo da. Sagardo horrek airea hartzen duelarik hartzidura mota guztiak egingo ditu: ozpindu eta abar. Era berean zura bera ere usteltzeko bidean jarriko da.



Hori ez gertatzeko, sagardo botilaratzen denean, bertan utzi behar dira ontziaren azpiko ama eta edariaren proportzio bat. Ontzia hermetikoki itxita. Horrek zura barrutik babestuko du. Gure aitonen formula erraza da: zuloa taparekin itxi, junturan seboa eman, eta hori, intsektuek edo saguek jan ez dezaten, igeltsuarekin estali.

Behin zurak zoko usain hori hartuta, ez da erraza kentzea. Lan hori hartzea merezi duen erabaki behar. Onena askatu eta oholak eta tapak marrusketatzea

da. Zurak axalean izango du nabarmena kutsu hori, eta hori kendu eta gero oholak bildu, ontziaren buelta osatu eta tapak jarri aurretik erre puntu bat eman. Hori dena eginda ere, baliteke kutsuaren arrastoren bat geratzea; hori gero muztioa sagardo egiteko hartzidurak edo irakinak berak kenduko dio.

Zur oneko ontziak, antzinakoak edota sagardo ona egiten dutenak badira, lan hori hartzeak mereziko du. Animo eta prestatu ontziak, aurtengo uztarekin beharko dira eta! ■

## IRAKURLEAK GALDEZKA



Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.eus](mailto:landareak@argia.eus) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

**Kaixo! Baratzea argazkiko belar txarrekerekin josita daukagu. Zer da? Ba al dago baratzetik kentzeko modurik? Ahal duzunean erantzuterik izango bazenu eskertuko nizuke.**

**Asier Altuna (Azkoitia)**



Kaixo Asier. Sabia izango dela uste dut, *Amaranthus retroflexus*. Agian bere generoko besteren bat, *Amaranthus hybridus*, adibidez.

Ezagutzen ez ditugun lurretan landare hauek txartzat ditugu. Ameriketatik ekarritakoak dira. Jangarriak dira, bai bere hostajea, berria denean, eta haziak ere bai. Kentzeko moztu eta moztu. Eta hurrengo ilgoran ere moztu.